

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1995eko abenduak 7 • 88.zka. •



Sarasua anaien diska kalean

Kode penal barria

Gurutze Mujikaren pintura erakusketa


Ziklo krossa indarra galduta



Konstituzio zubian zer egingo duzu?

Pedro Mari Azkargorta
(Langileak)

Egunkariak Sevilara joango naiz anaia ikustera eta domekan etorriko naiz. Beste egunetan base-rrira joango naiz.



Lurdes Etchebarriarteun
(Langileak)

Hemen geldituko naiz lana egin behar dut eta.



Nagore Rico
(Ikaslea)

*Zubietan normalean hemen gelditzen naiz, ez daukagu urteteko ohiturarik. Lagunekin urten-
go dut.*



German Arriola
(Ikaslea)

Hemen geldituko naiz. Lagunekin urten eta ondo pasatzen ahaleginduko naiz. Batzutan urten izan dugu lagunok kanpinean baina oraingoan ez.




Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



ESKUTITZAK

Banaketaekin arazoak

Bazkide agurgarriok:

Urte bukaerako azken hilabete hauetan lagun desberdinengandik, bazkide eta babesleengandik gehienbat, protestak jaso ditugu Aretxagazeta ez delako behar den moduan heltzen euren etxe edo lokaletara.

Guk arazo hau zegoenik susmatu ere ez genuen egiten, urtean zehar jasotako kezak oso guxti izan direlako eta kasu puntualak zirelaketan geunden.

Otsailean aldizkariaren ardura hartu genuenean, Aretxagazetak hainbat arazo zituela bagenekien, eta urtean zehar hauek konpontzen saiatu gara, banaketa arazorik ez zegoela pentsatuz.

Onartzen dugu gure errua eta barkamena eskatzen dizuegu banatze arazoak jasan dituzuen guztioi.

Jakin ezazue honen berri izan dugun momentu beretik, arlo honetan lanean ari garela ahal den neurrian arazoa konpontzeko.

Ez da lan erraza izango gure eskuetatik kanpo dauden hainbat faktorek zailtzen dutelako (banatzaileak denbora laburrean aldatzen dira hanka egiten digutelako, buzoietatik lapurretak ugariak dira eta abar).

Baina egon ziur guk hemendik ahal den guztia egingo dugula egoera hau ez dadin berriz errepikatu.

Josu Urkia
Aretxagazetako zuzendaria

Oharra: Aldizkaria etxean jasotzerako orduan arazoren bat baldin badaukazue deitu mesedez Aretxagazetako lokalera



79 01 05

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia
Erredakzio-konseilua: Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Xabier Arriola. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroja, M.J. Aretxaga, Loramendi E., Udala, Aitor Antxia, Iñaki Ureta. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta



Murgiltze ereduari buruzko ponentzia aurkezten Sitgesen izan dira Deba Bailarako 3 irakasle

Kurtzebarri eskolako Lurdes Etxebarria, San Francisco Xabier ikastolako Marisol Etxabe eta Eskoriatzako irakasle eskolako Matilde Sanz, Sitgesen izan dira murgiltze ereduaren metodologiaren urratsei buruzko ponentzia bat ematen. Bertan, metodologia honen urratsak zeintzuk diren eta urrats horiek zelan aurrera eraman azaldu zuten. Lurdesen adierazpenetan ponentziak harrera ona izan zuen eta lagun asko joan zen ponentzia entzuterara.

Murgiltze eredu orain dela zazpi urtetik

Orain dela 7 urte Kurtzebarri eskola, orduko B ereduaz ados ez zegoela eta Eskoriatzako irakasle eskolarekin batera, mintegi batean lanean hasi zen. B ereduari, ume erdaldunak idazketa eta irakurketa erdaraz egin behar dute eta esperientziak barrez euskeraz. Horrela 8. mailara helitzen direnean haurrek hizkuntza biak menperatu behar dituzte.

Kurtzebarri eskolaren ustetan B ereduaren planteamenduaz oso zaila zen hori lortzea eta B ereduari alternat-

ibak bilatzen hasi ziren.

Alternatiba hori murgiltze ereduia izan zen eta eredu hau aurrera eramateko metodologiak aztertzen hasi ziren. Hoiien artean, zelan ikasi bigarren hizkuntza bat, zelan antolatu behar den eskola bat eta ze metodologia erabili.

Murgiltze ereduia orain dela 7 urtetatik martxan dago Kurtzebarriko eskolan. Eredu honetan ume erdaldunak irakurketa, idazketa eta gainerako arloak euskeraz ikasten dituzte. *"Inguruko gaietatik gai bat aukeratu eta testo bat egokitzten diogu, -esan digu Lurdesek- osasuna eta elikadura landu behar baditugu esaterako, gaia azertu ondoren euren gurasoei azaldu behar diete testoa,"*. Honen barruan, esperientzia eta euskera lantzen dituztenean bi maila desberdinetan banatzen dira, euskaldunen eta erdaldunen abiapuntua berdina ez delako.

Administrazio mailan, murgiltze ereduia ez dago onartua eta hemendik aurrera murgiltze ereduaz lan egiten duten eskolek izango duten erroka administrazioak onartzea izango da.

Eskola mapak Kurtzebarri eskolari eman dio DBHren irakaskuntza



Behin behineko proposamenen arabera DBH eman ahal izango du Kurtzebarri eskolak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak azaroaren 29an eskola maparen aurkezpen ofiziala egin zuen.

Eskola mapak, Lehenengo Hezkuntzako (LH) irakaskuntzara (12 urtera arte) zein ikastolak mugatuko diren eta zeintzuek eman ahal izango duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) (16 urtera arte) proposatzen du.

Horrela, eskola maparen arabera Kurtzebarri eskolak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza emango du datorren ikasturtean. Hau horrela izanik, 2 urtetatik 16 urtera bitarteko ikasleak izango lituzke Kurtzebarri eskolak datorren ikasturteetik aurrera. Hau da, 3 ziklo, haur hezkuntza (2tik 5 urtera bitartekoa); lehen hezkuntza (6tik 12ra bitartekoa) eta bigarren hezkuntza (12tik 16ra bitartekoa).

DBH Kurtzebarri eskolari ematearen arrazioen artean, besteak beste, Aretxabaletako biztanle kopuruan eta Kurtzebarri eskolako matrikula kopuruan dago.

Baina eskola mapa ez da behin behinekoa eta oraindik tira-bira asko egon daitezke. Dena dela, behin behineko eskola mapa urtarrilean izango da prest.

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

**Artano
Taberna**

Herriko Enparantza
ARETXABALETA


**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

DOIKALSE

Elektroerosioa
Zuzendua

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44



Kepa Urrea, 1992. urteko urtarrilean atxilotu zuten

Epaileak 39 urtetako gartzela zigorra eskatzen du Kepa Urrarentzat

Joan den asteko martitzen eta eguastenean, Kepa Urrea atxabaltarra Madrilko audientzia nazionalan epaitu zuten, beste 10 Euskal preso politikorekin batera.

Atxabaltatik Keparenganako elkartasuna erakutsi asmoz autobuskada bat joan zen Madrilera.

Gaur egun, bere atxilotetik ia lau urte pasatu direnean, eta berak inolako deklaraziorik sinatu ez bazuen ere, hainbat ekintza leporatzen

diote, eta 39 urteko kartzela zigorra eskatu.

Keparen epaketak hila-ren 18an izango du jarraipena, dilijentzia eramalea izan zen goardia zibilaren arduraduna ez zelako aurreko epaketara azaldu.

Bide batez, Aretxabale-tako AMNISTIAREN ALDEKO KOMITEAK egoera hau salatzen du, epaituendako askatasuna eskatuz, dispertsioaren aurkako jarrera azalduz eta Euskal presoek Euskalerriratzea eskatuz.

Giza baloreak landuko dituzte Kurtzebarri eskolan

Abenduaren 14tik 21era bitartean, "Berdintasunerako heziketa desberdintasunean" lemapean, giza baloreak landuko dituzte Kurtzebarri eskolan. Guzti honen helburua, denon berdintasunetik abiatuz, integrazioa lortzeko, denon arteko jarrera hobetzea da. Horretarako, beste kultura batzuk baloratuko dituzte, beste arraza batzuetako jendea ezagutuko dute eta ezinduen esperientzia pertsonalak ezagutu besteak beste.

Aste osoan zehar, ormirudiz, ipuinez eta liburuz osatutako erakusketa izango dute.

Abenduaren 14an, jokuak eta ondoren erreflexioa.


Abenduaren 15ean, kanpoko pertsonekin solasaldiak. Hoi-en artean, emakume colombiarra Luzma Rojas, senegaldar bat, Chëikk Dieng, O.N.C.E.ko Amaia Zalakain, gazte bosniarra Nina, eta SAIATU elkarteko eliteko kirolariak. Hoi-en artean, Javi Pedrosa atleta, Jose Pedrosa txirrindularia, Patxi Quiroga tenislaria eta C. D. Suarrak saskibaloia jokalaria. Jokalari hauek exhibizioa egingo dute patioan.

Abenduaren 18an, Hezikidetzari buruzko bideo emanaldiak eta hauen inguruko erreflexioa.

Abenduaren 19an, Braille metodoaren azterketa.

Abenduaren 20an, Aretxabale-tako ezinduek (gorrak, itsuak, e.a.) besteok erabiltzen ditugun zerbitzu berdinetara joateko dituzten zailtasunen zerrendaketa egingo da.

Eta bukatzeko, abenduaren 21ean, gabon kantak abestu ondoren ezinduek dituzten zailtasunekin egindako txostena udaletxera bidalitz.



LOGOPEDIA ZENTRUA

ARRASATE


HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE



Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S.A.

"ARINSA"

Basabe Poligonoa "EO-10"

Tefonhoa: 79 62 80

ARETXABALETA (GIPUZKOA)



**TABERNA-BERRI
JATETXEA**

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

Jon eta Aitor Sarasuaren diskoa kalean da



Aitor eta Jon Sarasua Aretxabaletako liburutegian eman zuten emanaldi batean

“Fauna txiki bat bertso berritan” horrela deitzen da Jon eta Aitor Sarasuak grabatu barri duten diskoa. Disko honetako kantuak iazko Durangoko azokan kantatu zituzten lehen aldiz. *“Orduetik hainbat emanaldi egin ditugu han eta hemen, baina gehiago izan da ezetz ez esateagatik gure asmoagatik baino -dio Jonek- emanakizunak arrakasta izaten ari zirela eta diskoa grabatzearen ideia*

etorri zen”.

Elkar argialetxearen eskutik plazaratu dute 12 bertso musikatuaren diskoa. Kantu bakoitzak animalia baten ikuspuntutik ikusitako gaia deskribatzen du, lurra-rikiko amodioa, Maritxalarren zatira, e.a. Horrela gai desberdinei faunaren bidez osotasun eta lotura bat eman gura izan diote. Hortik dator diskoaren izena.

Bi anaien artean egin dituzte

bertso paperen letrak. Musika barrez, tradizionalak diren bertso doinuekin eta beste 4 musika barriren doinuekin osatzen da. Musika leuna sortu gura izan dute, eta abestien oinarria, pianoa eta ahotsaren arteko elkarrizketa izango litzateke. Hala ere, abesti batzutan, gitarra, biolontxelo, tronpa, biolina, e.a. entzun daitezke.

Jonen adierazpenetan, esperientzia guztiz barria izan da bi anaiarentzat. *“Estudio mundua eta grabaketa mundua ez genituen ezagutzen eta guztia barria izan da guretzat, eta oso aberasbarria gainera. Musikalki ere asko ikasi dugu”.*

Lau atxabaltarren partehartzea diskoan

Esan beharra dago, diskoan lau atxabaltarren parte hartu dutela. Jon eta Aitorrez gain, lehen aipatu moduan, Juan Luis Lekunberrik konponketa asko egin ditu musika alorrean. Bestetik diskoaren diseinua Iñaki Garmendiarena da.

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

CONSTRULAN ARQUERO ANAIK

Indusketa eta etxagintza lanak

Basabe Poligonoa, 4 EO-11

Tfno eta faxa: 79 01 51
ARETXABALETA

Epelde

- Estudioa
- Ezkontza-erreportaia
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79



KELER



El León

FELIX ARRESE

Edari Banatzailea

Industrialdean
Tfnoa: 79 60 65

Ejertzitoari ezetz esan zion Talde Antimilitaristak



Antimilitaristek intsumisioaren aldeko murala margotu zuten

Aretxabaletako Talde Antimilitaristak herrian mugimendu antimilitarista bultzatu guran eta kode penal berria salatu asmoz astebukaera antimilitarista antolatatu zuten.

Eguakotxean, abenduaren leian, kode penal berriaren inguruko hitzaldia egon zen eta bertan Alvaro Marcet, Kakitzat Koordinakunde Antimilitaristako abokatua eta Ramon Lizarraga, Kakitzateko intsumisioa izan ziren hizlariak.

Zapatuan, eguraldi txarra lagun, ezin izan zuten antolatutako bizikleta martxa aurrera eraman eta horren ordez kotxe karabanak zeharkatu zituen herriko kaleak.

Egun berean, Mitarte kalean intsumisioaren in-

guru mural bat margotu zen, eta bitartean beste batzuk majo dastatu zuten gazta eta sagardoa.

Arratsaldean, bolo txapelketa jokatu zen eta ostean, espainiar ejertzitoaren hilobiratzearen parodia egin zen. Eguraldi txarra izan arren jendearen parte-hartzea ona izan zen.

Astebukaera antimilitaristari, Ezkutu tabernan egin zen kontzertuaz eman zitzaion amaiera. Latzen eta Martxoak 31 taldeek jo zuten.

Kode penal barria

Alvaro Marcet eta Ramon Lizarragak, kode penal barriaren aurrean borrokatzeko zein bide egon daitezkeen, kode penal barriak ze esaten duen eta intsumisioentzat

aurreikusten duten erreprezioaz berba egin zuten.

Ramonek intsumisioa gero eta zigortuagoa da goela esan zuen eta honetarako objezio eta intsumisioak orain artean izan dituen aldaketak esplikatu zituen. "89. urterarte, objezioa ez zegoen onartuta. Objeto eta intsumisio kopurua erreserbara pasatu zituzten, amnistia bat eman eta horrela soldaduzkaren ordezko moduan eskaintzen duten prestazioa martxan jarritz".

Hurrengo lege aldaketa 92an izan zen. Lege honek urtebeteko kondena eskatzen zuen intsumisio batentzat.

92tik aurrera, lege militarretik zibilera pasatu zituzten epaiketak, eta hemendik aurrerako intsumisio guztiek zigor berdina jasan behar zuten, 2 urte, lau hilabete eta egun bateko eskaera zigorra.

92tik ona beste lege aldaketa batzuk egon dira. Eta aldaketa txiki hauek zigor kode penal barri honen beste tratamendu bat ekarri dute.

Gizarteak despenalizazioa eskatzen du eta gobernuak kode penal barriarekin hau aurrera eraman gura du, gizartearen aurrean ondo geldituz. Antimilitaristek ordea, despe-

nalizazio hau desprizionalizazioa dela esaten dute, azkenean kartzela zigorra kendu arren beste zigor batzuk jartzen dituztelako.

Lege barriarekin, intsumisioak espetxetik aterako dituzte, erreprezioa argia delako baina kartzela zigorraren ordez, inhabilitazio gogorak ezarriko zaizkie. Erreprezio hau oso ondo pentsatutako estrategia zela esan zuen Ramonek, eta benetan intsumisioari min asko eman diezaiokeena. "Gazte intsumisioentzat hain garrantzitsua den lanbidean eta laguntzetan eragina izango du eta hau kartzela baino latzagoa izan daiteke".


Bi motatako zigorrak

Bi motatako zigorrak egongo dira kode penal barriaren arabera:

1.- Soldaduzkari intsumisio izateagatik: Kasu honetan, kartzela zigorra kendu egingo da aurreko zigor penalik ez badago behintzat. Honen ordez, 10etik 14 urtetara bitarteko inhabilitazioa ezarriko da, postu publikoetarako, gizarte laguntzetarako, beketarako eta diru laguntzetarako.

2.- Ordezko zerbitzu sozialera intsumisio izateagatik: Hautentzat 8tik 12 urtetara bitarteko inhabilitazioa eta honez gain, 12 hilabetetatik 24 hilabetetara bitarteko isunak. Isun hau 200 pezetatik 50.000 milarartekoa izan daiteke eguneko.

Gobernuak datorren urteko maiatzean ipiniko du martxan kode penal barria.



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia
ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA




SAIAK:

mendietako zaintzaileak

Bizidun bakoitzak zeregin bana du naturan eta bere lana guztiz beharrezkoa da oreka ekologikoa mantenduko bada. Era berean, sarraskijale izatea ez da lotsagarria, oreka honetako lanbide garrantzitsua baizik.

Argi esanda, Iberiar Penintsulan ditugun lau saiek mendia garbitzen dute. Azkenaldian aipatu izan da prentsan, Karrantza aldeko sai-arre batzuek

hainbat ardi hil dituztela. Hau ordea, gezur hutsa da, beraien fama txarrak sorturiko ideia faltsua, besterik ez. Zorionez 50. eta 60. hamarkadetako hilketa eta pozoinqueta masiboak bazterrean utzi badira ere oraindik zenbait espezie desagertzeko zorian daude eta ondorioz legeak babestu egin ditu. Ez ote da beranduegi izango (Ugatza erantzut esaterako)?



SAI ARREA (*Gyps fulvus*)

Luzera: 96-102 zm

Pisua: 4-6 kilo

Gazt: Buitre Leonado

Hegal-zabalera: 250-270 zm

Euskadin: Lurralde osoan

Lumaia arrea du, hegal puntak eta buztana beltzak badira ere. Ezaugarri nabarmenena bere lepo biluzia da, barrenean luma zurizko kollarrak apaintzen duena. Mendigain bakartietan bizi da eta lurralde zabalen gainetik planeatzen ibili ohi da sarraski bila. 3500 bikote inguru daude Penintsulan, hauetatik 1015 Nafarroan.



PUTRE BELTZA (*Aegypius monachus*)

Luzera: 102-115 zm


Pisua: 5-7 kilo

Gazt: Buitre negro

Hegal-zabalera: 270-290 zm

Euskadin: Ez dago jadanik

Lauretan haundiena den sai honek, lumaia oso iluna du, eta sai arreak ez bezala buztana "kuña" eran. Mediterraneoan munduko edota mendietako konifero-basoetan bizi da eta zuhaitz hauen gainetan egiten du habia. Jatekoaren bila kilometro askotako bidaiak egin ditzake. Penintsula osoan 350 bikote baino ez daude.



SAI ZURIA (*Neophron percnopterus*)

Luzera: 60-65 zm

Pisua: 1,4-2 kilo

Gazt: Alimoche

Hegal-zabalera: 145-165 zm

Euskadin: Araba eta Nafarroan (udan)

Sai txiki honek lumaia zuria du baina hegopunta beltzak. Burua berri zuria/naranja du. Leku bakartiak ditu gustoko eta bere habia toki harkaitzuetan ikus daiteke. Sarraskijalea bada ere, ez die muzin egiten suge, intsektu, barraskilo edo arrautzei. Penintsula osoan 1000 bikote inguru daude bakarrik.



UGATZA (*Gypaetus barbatus*)

Luzera: 100-110 zm

Pisua: 4-6,5 kilo

Gazt: Quebrantahuesos

Hegal-zabalera: 242-280 zm

Euskadin: Piriniotan

Bularraldea naranja kolorekoa badu ere, hegoak eta bizkarra beltzak dira. Ugatza, hezurren muineko likidoaz elikatzen espezializatu da. Hezurak apurtu behar ditu horretarako eta hau honela lortzen du: hezurra hartu eta airean eramaten du, gero bertan askatu eta lurraren kontra apurtzeko. Hortik datorkio bere gaztelerazko izena. Penintsula guztian Pirineotan baino ez da bizi eta bertan ere 50 bikote, gehiago ez.



Gurutze Mujika: "Baserriak, basoak, eta mendi inguruak margotzen ditut gehienbat"

Gurutze Mujika Beasainekoa da izatez baina azken lau urte hauetan Arientza auzoko Arientza-Etxebarri baserrian bizi da, bertara ezkondu zen eta.

Txikitatik gustatu izan zaio margotzea, koadroak margotzen orain dela sei urte hasi bazen ere. "Iruñan irakasle batekin aritu nintzen ikasten eta baita Bergarako Abdon Jauristirekin urte térdian ere eta orain neure kasa ari naiz".

Margotzea afiziotzat badu ere, lan batzuk eta enkargu batzuk ere egin ditu. Paisaiak margotzen ditu gehienbat, hori du gustokoen eta baita ondoen margotzen duena ere. Hala ere, bestelako koadroak ere margotzen ditu, bodegoiak esaterako eta batzutan pertsonaiak ere bai. "Baserriak, basoak, mendi inguruak, margotzen ditut gehienbat. Batzutan postaletatik ateratzen dut margotu nahi dudana, argazkietatik beste batzutan". Baina gustokoena kanpoan margotzea du. Bere margo lanak ez dira bakarrik koadroetara mugatzen, esneontziak, buztin ontziak, e.a. ere margotzen ditu eta hauek lorez apaintzen ditu normalean. Ontzietarako pintura akrilikoa erabiltzen du eta

Gurutze Mujikak afiziotzat du koadroak margotzea. Bere pintura lanak ikusgai izango dira Mitartegarain datorren abenduaren 5etik urtarrilaren 7ra arte.



koadrotarako oleoa. Margotzerako estilo definiturik ez du Gurutzek, hala ere koadro inpresionistak asko gustatzen zaizkio.


Margotzeak poztasun bat ematen dio. "Pintatzen hasten zarenean koadroan barrena sartzen zarela iruditzen zaizu, inguruko guztiaz ahaztuz".

Baina Gurutze zelako artista den ikusteko eta bere arte lanak erosteko aukera izango dugu. Dagoeneko bere koadroak ikusgai daude Arientzako Mitartegarai nekazalturismo baserrian.

Gurutzek adierazi digunez, koadroen prezioen media 50 mila pezeta inguruan dago. Prezioa jartzerako orduan, bukaera zelan gelditu den baloratzen du Gurutzek, "Margotutakoaz gustora gelditzen banaiz eta lana badu koadro

horri prezio haundiagoa jartzen diot beste bati baino."

Oleo eta ontzi erakusketa abenduaren 5etik urtarrilaren 7ra arte egongo da ikusgai. 17 koadrok eta 12 ontzik jantziko dute eta bertan gure inguruko baserriak, mendiak eta paisaiak ere margoturik ikusteko aukera izango dugu.



BASTER-ALDE JATETXEA

KO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

GURUTZE MUJIKAREN PINTURA ERAKUSKETA

Abenduaren 5etik urtarrilaren 7ra

Mitartegarai
Jatetxea

Arientza Auzoa • Tfnoa: 79 17 51

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 Tfnoa: 79 81 78
Aretxabaleta



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala


Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA

Kontzezinoko zubian, abenduaren 8an, nazioarteko ziklo kross proba garrantzitsua ospatzen zen Aretxabaletan. Bai Euskal Herri mailan, baita estatu mailan ere, ohiartzun handia zuen karrera. 1967. urtean ospatu zen lehenengo nazioarteko ziklo kross proba eta ordutik 1991. urterarte 22 proba egin dira Aretxabaletan. Azken hiru urteetan promozioko kadete eta jubenilen karrerak antolatu dira baina aurten ez dugu ziklo krossik izango.

Manolo Zubillaga beste lagun batzuekin batera hasiera batetatik nazioarteko ziklo kross kriterium hauen antolatzaileetariko bat izan da.



*Ezkerraldean: Manolo Zubillaga, UDAko txirrindulari komisiokoa
Eskuman: Renato Longo txirrindulari italiarra. Lehenengo nazioarteko ziklo kross txapelketako irabazlea*

Manolo Zubillaga: “Ziklo krossak asko galdu du eta ez dago kategoriarik, horregatik gurago dugu bestelako txirrindulari probak antolatzea”

• Nazioarteko 22 ziklo kross proba antolatu dira Aretxabaletan. Non dago guzti honen sorrera?

1966. urtean hasi ginen lehenengo ziklo kross proba prestatzen. Honen aurretik 1955. urtean karrera batzuk egin ziren eta hemen antolatu zen Gipuzkoako ziklo kross txapelketa. Ni, laguntzen aritu nintzen orduan. 1966. urtean Eloy Uriarte, Angel Arrese, Luis Mari eta Juan Antonio Iturbe, Luis Guridi eta beste lagun batzuk elkartu eta komisio bat sortu genuen. Txirrindularitzaren inguruan zerbait handia egin gura genuen. Espainiako telebista ere etorri zen eta zuzenean emititu zen karrera. Oso arrakasta handia izan zuen probak. Profesionalean Alfredo Irusta izan zen txapelduna eta Basualdo afizionatueta. Hortik aurrera nazioarteko ziklo kross probak antolatzen hasi behar ginel

pentsatu genuen. Hurrengo urtean antolatu zen beraz, lehenengo nazioarteko ziklo kross proba, 1967. urtean hain zuzen ere.

• Nola gogoratzen duzu lehenengo nazioarteko criterium-a?

Egun handia izan zen. Txirrindulari onenak bildu ziren. Renato Longo izan zen txapelduna eta honekin batera Rolf Wolfshoh. Txirrindulari hauez gain Ducasse eta Pelchat txirrindulari atzerritarrak ere etorri ziren. Arrakasta handia izan zuen probak. Herri guztiak lagundu zuen eta hura izan zen handik aurrera ziklo krossa antolatzeko indarra eman ziguna.

• Aretxabaletan antolatu diren nazioarteko ziklo kross txapelketak, beti toki berean egin dira?

Ez. Lehenengo ziklo kross probak Andra Mari auzunean egin ziren. Ondoren Copreziko zelaietan

egin zen eta Copreziko zubian egoten zen helmuga. Hemendik Urkuluko urtegian egitera pasatu zen, oraindik urez bete gabe zegoenean eta bertan beste bi proba edo egin ziren. Azken urteetan Arbizelain egin izan da.

• Txirrindulari onak etortzen ziren?

Bai, oso onak. Normalean suitzarrak eta belgiarrak izaten ziren txirrindulari onenak. Irabazle guztiak munduko txapeldunak ziren, Roland Liboton, Paul de Brauer, Peter Thaler, Renato Longo, e.a. Urte bakar batean irabazi zuen euskaldun batek, Iñaki Maiora ormaiztegiarrak, 1980. urtean. Bestela, beste urte guztietan atzerritarrak irabazi zuten proba.

• Zelan ekartzen zenituzten txirrindulariak?

Donostiako mutil batek, Jose

Mari Eceizak egiten zituen txirrindulariekin kontaktuak eta gero guk gestioak egiten genituen.

• **Herritarren partehartzea ere, garrantzitsua zela aipatu duzu.**

Bai, lehenengo urteetan herritarren partehartzea eta laguntza haundia izaten zen, azkenengo urteetarako jeitsi egin bazen ere. Jendea goizean goiz hasten zen lanean eta emakumeak ere mezetara bidean prest eramaten zuten dirua karrera ordaintzeko. Azken urteetan galdu egin zen elkarlan hori eta komisiokoak eta beste koadrila batzuk aritzen ginen.

• **Zein egunetan ospatzen zen?**

Karrera beti abenduaren 8an egiten zen eta egun hau urte askotan mantendu da. Azken urteetan barrez egunari ez genion horrenbesteko garrantzia eman.

• **Eta zu Manolo, zenbat urtetan izan zaitugu komentaria?**

Beno... urte askotan. Lehenengo bi urteetan Pepe Urtubi zena aritu zen eta beste urte batetan Asier Aranguren ere bai. Baina beste urte

gehienetan neu aritu naiz.

• **Anekdotak bitxirik izango duzu kontatzeko...**

Bai, anekdotak asko izango dira. Lehenengo urtean, Peter Fritchener suitzarra etorri zenean, Urkulura eraman genuen eta gora heldutakoan, Ojala-zelai inguruan, zera esan zuen: "Oh! Zuiza txikia!". Harrituta gelditu zen gure paisaiaz, asko gustatu zitzaion.

Beste behin Coprezin txapelketak egin genituenean, Basabetik behera aldatz haundi bat egoten zen. Txirrindulari batek, Garridok, bilbotarra zena, aldatz hori jeisten zuenean jausi egiten zen espektakularitatea emateko. Gero, prima bat ematen zioten jausten zen bakoitzeko. Egia esan, aldatz haundia zen eta arrisksua gainera.

Andra Mari auzunean egin genuen lehen karreran barrez, Rolf Wolfshohl suitzarra etorri zen. Honek eskietan zekien eta aldatz beheratan bizikletan alde batera jartzen zen, hanka bat pedal gainean zuela eta bestea luze, eskietan moduan. Kriston espektakulua ematen zuen.

• **Historial luzea du Aretxa-**

baletak nazioarteko ziklo kross probak antolatzen. Noiz eta zergaitik utzi zitzaion antolatzeari?

Orain dela hiru urte, 1990. urtean antolatu zen azkena. 1966. urtetik ona urtero urtero antolatu izan da, bi urtetan izan ezik, politikaren inguruko arazoak zirela eta. Bestela urtero antolatu da eta herriak izugarri lagundu du. Bukaerarako puxkat nekatuta ere bageunden eta karrerak antolatzeko orduan arazotxo batzuk ere izan genituen eta azkenean utzi egin genion antolatzeari.

• **Badirudi, ziklo krossa indarra galtzen ari dela.**

Egia esan bai. Ziklo krossa oso galduta dago eta kategoriarik ez dago. Lehen nazioarteko 10 bat karrera antolatzen ziren Euskal Herri mailan, aurtan 3 edo 4 antolatuko ziren bakarrik.

• **Azken hiru urte hauetan barrez, promozioko jubenil eta kadeteen ziklo kross karrerak antolatu dituzue. Izango dute jarraipenik?**

Ez, kategoria txikiagoetan ere utzi egin diogu ziklo kross karrerak antolatzeari, promoziorik ez duela ikusten dugu. Jubenil mailatik ez dute gorago igotzen txirrindulariek eta horregatik erabaki dugu ez duela jarraitzerik merezi. Gurago dugu bestelako karrerak promozionatzea. Datorren urteko iraila alderako esaterako, UDA elkarrean 50. urteurreña dela eta ia ziur herrian bertan egingo den criterium profesional bat antolatuko dugu.

• **Nortzuk zaudete momentu honetan UDAko txirrindulari komisionan?**

Momentu honetan, Aintzine Mendia, Jose Mari Roldan, Pello Zubizarreta, Jose Angel Arkauz, Jose Manuel Garcia eta ni neu gaude.



Ziklo krossa Arbizelai ondoko zelaietan

NAZIOARTEKO ZIKLO KROSSEKO HISTORIALA

10-12-67	Renato Longo (Italia)	9-12-84	Paul de Brauwer (Belgika)
5-01-69	Peter Fritchkener (Suiza)	8-12-85	Mathieu Hermans (Holanda)
4-01-72	Pierre Bernet (Frantzia)	21-12-86	Paul de Brauwer (Belgika)
2-01-72	Peter Fritchkener (Suiza)	8-12-87	Christian Hautekete (Belgika)
8-12-72	Rene Declerq (Frantzia)	4-12-88	Win Lambrechts (Belgika)
8-12-73	J.V. Den Haesevelde (Belgika)	23-12-89	Mike Kluge (Alemania)
8-12-74	Albert Van Damme (Belgika)	23-12-90	Mike Kluge (Alemania)
8-12-75	Peter Thaler (Alemania)		
8-12-76	Peter Thaler (Alemania)		
9-12-77	Hennie Stamsnijder (Holanda)		
9-12-80	Iñaki Maiora (Ormaiztegi)		
8-12-81	Peter Thaler (Alemania)		
8-12-82	Hennie Stamsnijder (Holanda)		
8-12-83	Roland Liboton (Belgika)		

Promozio mailan:

Kadete mailan Jubenil mailan

29-12-91	Xabier Lizaso	Igor Beristain
26-12-92	Haimar Zubeldia	Xabier Saizar
23-12-93	Mikel Roldan	Xabier Saizar



Argazkikoak: Ezkerretik eskumara, Jose Mari Elgoro, Pelchat, Ducasse, Eloy Uriarte, Angel Zubillaga, Rolf Wolfshohl, Renato Longo, Gregorio Lasagabaster Juanjo Ezkibel (itzultzailea).



URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

J. ALTUNA

Zurgindegia


Sukalderako
altzariak

Basabe Poligonoa, A-2-3
☎ 79 72 55 Aretxabaleta

Izozkitekari-Gozotegi

IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA



Abraham Olanok merezitako omenaldia jaso zuen azaroaren 25ean Dorletako Santutegian. Bertan, Deba Bailerako zikloturistek beste txirrindulari afizionatu batzuekin batera ongi-etorri beroa egin zioten.

Argazkian, Dionik, zikloturisten zuzendariak, Dorletako Amaren irudia oparitu zion anoe-tarrari.

UDAK garaipen bikaina lortu zuen hondarrabitarren aurka

UDAKo preferenteek domeka goizean jokatu zuten partidua Hondarrabin. Urtero moduan, hondarrabitarren aurka jokatzen dutenean kontzentrazioa egiten dute jokalariek partidora joan aurretik. Horregatik goizeko 8retan elkartu ziren Uratz-Alde elkartearen eta bapo armozatu ondoren Hondarrabira abiatu.

Zerbaitetarako balio izan ziren kontzentrazioak, izan ere, emaitza bikaina lortu zuten, 3-5eko garai-pena. 5 gol sartu zituen UDAK baina bi jokalaria izan ziren goletzailleak. Erikok 2 gol sartu zituen eta Kepa Azkuek hiru.

Garaipen honekin UDA 5. postuan dago klasifikazioan, 24 punturekin.

Zoriontzekoa da talde atxabal-tarra, izan ere, gol gehien sartu dituen taldea da, guztira 35 gol.

Ez dago txarto.

Hurrengo partidua etxean jokatuko dute preferenteek, Lazkao izango dute aurrez-aurre eta partidua polita ikusteko aukera izango dugu, Lazkao UDAREN hurrengo dago klasifikazioan eta. Partidua domekan izango da arratsaldeko 4,30etan.

Beste partidua:

Lehenengo regionala

Aretxabaleta	3
Aierri	3

UDAKo neskek

Alde Zaharra	6
--------------	---

Ohorezko jubenila

Aretxabaleta	0
Beraun	1

Bigarren jubenila

Bergara	1
Aretxabaleta	1

EGUZKI GRAF
inprimategia

Industrialdea E-0-4
Tfnoa: 79 18 44
Faxa: 79 29 41

ARETXABALETAKO

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETAKO

JOSU

HARATEGIA
URDAITEGIA-GOZOTEGIA
KROASANTEGIA
"JANARI PRESTATUAK"

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

GUREA
TABERNA
JATETXEA

Durana Kalea
Tfnoa: 79 20 64

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta


IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 16
☎ 79 73 65

ANGELINES



Autozerbitzua
Mitarte, 16 ☎ 79 61 42



HAIZEA
AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

GEMES

EPILATERM
Min gabeko depilazioa


Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta



Lurrindegia
Opari-denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59



11 urte dituen Amaia Gorostiza, Kurtzebarri eskolako 6. mailan dago. Literatura barruan komiki testua ezagutzen aritu dira eta Amaiak, Ane eta Asierri gertatzen zaien istorioa kontatzen duen komikia egin du. Irakurri arretaz, kontu polita da eta.



Amaia Gorostiza
11 urte



• Amaia, zertaz doa komikiko istorioa?

Neska-mutilen bi talde futbolean jokatzeko aritu dira. Baina bapatean Ane eta Asier haserretu egiten dira. Batak besteari tranpa egin duela esaten dio. Orduan, neskak alde batetik eta mutilak bestetik joaten dira, taldea banatuz. Baina azkenean Ane eta Asierrek batak besteari barkamena eskatzen dio eta berriz ere lagunak egiten dira.

• Zuk asmatu duzu istorioa?

Bai.

• Ze kostatu zitzaizun gehien? Komikia marraztea.

• Eta ze da gehien gustatu zaizuna?

Margotzea.

• Zuk futbolean jokatzeko duzu?

Bai, jolasten dut futbolean. Gimnasiako orduetan eta jolasaldian gehienbat.

• Eta gertatzen dira horrelako haserreak? Batzutan bai.

• Zer da istorioko garrantzitsuena?

Azkenean, bai Ane eta bai Asier lagunak egiten direna. Tontokeria batzungen ez da haserretu behar. Horrelakoetan barkamena eskatu behar izaten da.

MEMESA S.L.
Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA


ARETXABALETA
ITURGINTZA
Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

MartiW
Bere bezeroen zerbitzuan
Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK
URKULU, S.L.
Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

SHOT! Grabaketak S.L.
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Eskatu Pabiloia
☎ 943-79 37 51
ARRASATE Gipuzkoa



Aurreko alean, Aretxabaletako sorrerako Andra Mari abesbatzaren argazkia atera genuen. Baina bi gauza oker esan genituen. Alde batetik, Andra Mari abesbatzaren argazkia ez zen 1951. urtean ateratakoa, 1953. urtean baino.

Goiko bi argazkiak barriz, 1951. urtean Andra Mari abesbatza Madrilerara joan zenean ateratakoak dira. Argazkian ikusten den moduan probintzi bakoitza (eta ez autonomia, aurreko alean esan genuen moduan, orduan autonomiarik ez zegoen eta) bertako traje erregionala jantzita joan zen. Argazki hauetan ere **M^a Luisa Arrue** zuzendari dutela agertzen da Aretxabaletako Andra Mari abesbatza.

Negurako gertu



M.J. Aretxaga

Negurekin batera giroa hotza eta herriko arbolentzako lotsa, biluzik utzi dituzte podaketa gogor baten ostean eta. Baina eguraldi hau ez da danetarako txarra, kartetan egiteko primerakue. Hortan pasatu zuten zapatua Uratz Alde Elkartekoek. Bertan, **Fermin Alcalde** eta **Agustin Morales** izan ziren txapeldunak. Denbora hau kastainak jateko be edarra da, (asko ez dira geratuko onezkero), **Kurtzebarri eskolakoek** oingo astean erre dituzte eta baita tripa ondo bete ere.

Tripa beteta hartzen ei dira erabaki onenak. Nik ez dakit tripa beteta ala bete barik erabaki duten **IKASTETXERi A** gehitzea baina har dezatela nire zorionik beroena.

Garai hauetan ohitura izaten da egutegiak

erosteak. Arantzazukoa besteko ezaguna ez da izango Seaskakoa baina hala ta be, gure artean ezaguna da eta aurten erosi gura izan ezkerro, **Iragartze Okaranza** eta **Maidar Elkororengana** zuzendu beharko zarete, eurak ardatatuko dira horretaz eta.

Arbolak ez dira izan negurako euren janzkera aldatu duten bakarrak. **Azbe**ko lantegiak beharregatik edo akaso enbidiagatik berdina egitea erabaki du. Aurpegia oso txukuna gelditu zaio, marra eta guzti. Bere edertasun gorena lortzeko urteroko arbola apaintzea gelditzen zaie. Ni behintzet ikusteko desiatzen nago, gabonak gertuago ditugun seinale.

Azben ibili direnak ez dira herriko artista bakarrak. **Intsumisoek** ere saio txukuna egin zuten zapatuan. Baina maixuen maixu, **Martin Garai** da. Bera izan da VI. lumaz idatzizko lehiaketan Gipuzkoako bigarrena eta Euskal Herriko laugarrena.

Badakitxue orduan, noizbait Martinen multa bat jasotzen baduzue Euskal Herriko dotorienetarikoa izango dala. Gorde ezazue badaezpada ere. Artelanak denboraz apreziatzen dira eta.

A R E T X A Z O K A

- Euskeraz, ingelesez, gazteleraz ETB hizkuntzatatz eta ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Kontaktua: 79 47 54

LANA

- Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 79 63 88. Galdetu Begoñagatik. (Arratsadez deitu ezkerro hobe)

- Emakume heldua behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 10 62

- 1.go mailatik 8. mailara arteko klase partikularrak emango nituzke. 79 24 19

- Klase partikularrak emango nituzke, 2. REMerarte. Telefonoa: 79 27 14

ETXEBIZITZA

- Pisu bat salgai dago Aretxabaletan, Solo-haundi 25 kalean. Hornitua dago. Harremantarako telefonoa: 79 46 25

- Aretxabaleta edo inguruko herri batean logela indibidual baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko baimenarekin. Deitu 35 13 28 edo 51 78 44 telefonora eta Jabierregatik galdetu.


- 82 m²-ko lokala salgai. Hiru horma kalerutza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Lora-mendi 10 kalean dago. Telefonoa: 79 01 17

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak e.a.) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.



Iker Altuna

“Barra barruan pazientzia haundia eduki behar da”



Iker Ezkutuko tabernaria da. Barra barruan ego- tea zer den ondo eza- gutzen du. Aurretik ere beste taberna batzutan lan egindakoa da, Urbaltz tabernan hiru hilabetez lan egin zuen astebukaeretan eta on- doren 4 urtez Bodegan lanean aritu zen, hontan ere astebukaeretan.

- **Tabernari lana gustoko duzu?**
Bai, gustoko dut.
- **Ze du ona tabernari lanak eta ze txarra?**
Jende asko ezagutzen duzu eta azken finean lan bat da. Bestetik, pazientzia haundia izan behar da eta astebukaeretan lan egin.
- **Ze lanengatik aldatuko zenuke?**
Fabrikari lan egiteagatik.
- **Noiz egoten da lagun gehien Ezkutun?**
Astegunetan kafe orduetan eta astebukaeran gauetan.
- **Tabernari ona zarela esaten dute...**
Esaten badute “bien” eta bestela “tambien”.
- **Alkohol bako edaria asko edaten da?**
Bai, gazteek zumo asko edaten dute.
- **Zuk zeuk ze edaten duzu?**
Nik garagardoa, Kelerra.
- **Zelan ikusten da barra barrutik kanpoko giroa?**
Jendeak oso ondo pasatzen duela ikusten da.
- **Alfonbra hegalarri bat izan ezkerora nora joango zinateke?**
Islaren batera.
- **Zein da neskiak egin dizun erregaluri politena?**
Erloju bat.
- **Beldurra zeri?**
Momentua eta egoera ikusi beharko litzateke.
- **Lagunentzat Iker edo Atxurdirin?**
Atxurdirin.
- **Zure ametsetako ilusio bat...**
Loteria tokatzea. Eta hori tokatutakoan ikusiko nuke zer egin.
- **Soldaduzka egiteko asmorik bai?**
Objetorea naiz.
- **Ze da gabonetatik gehien gustatzen zaizuna?**
Orokorrean dena gustatzen zait. Gabonetan oso giro ona egoten da eta familiakoekin elkartzeko gara.
- **Zelako musika gustatzen zaizu?**
Denetik gustatzen zait, baina gehixenbat Harkore melodikoa.
- **Eta talde bat esatekotan?**
Bad Religion.
- **Eta bukatzeko Iker, ze baloratzen duzu neska batean?**
Maja izatea.



Gurutzegrama

Hitz luzeak idazleak	Okelazale	Zeinua	Erne	Dago
Hizketa kidea	Ikerketa arto	Lapurdikoa herria	Laidoa	Ahalegina
Jan eta edan gabe				Lotan
Debakoa			49	
Matematika unitate			Atako orratia	
Soldata		Nafarroako herria		Oihukaria
Ez geza		Estuak	Ipar Ardo	
Kontuak zarbitu			Uranioa	
Errepika			Portu	
Armaak			Kontso- nantea	Hidrogenoa (Errep.) Elurra gozoa
			Pate bat	
			Hegaztien gizona	
Atx!		Atzizkia	Arantza tresna	Aluminioa
... egin, politikari haiei		(Her.) Katen	Horma, karrain	Enakume zahar
	Potasioa	Atzizkia		
		Malndirea		
Amak gaitzetsitako ume	Atzerritar	Nazien bokalak		
	Urea			
				Bat
				Kontso- nantea
Momentu		Merkanua		

Aurreko aleko gurutzegramaren erantzuna


●	Z	●	I	●	E	●	I	●	K
H	A	N	D	I	K	E	R	I	A
●	B	A	I	●	O	H	E	A	K
D	O	H	A	I	N	I	K	●	T
●	R	A	●	N	O	Z	I	T	U
E	T	S	I	●	M	A	●	A	S
●	E	T	S	A	I	●	E	R	A
I	G	E	L	●	L	A	U	R	●
●	I	●	A	D	A	R	R	A	K
B	A	L	D	A	R	●	O	P	A
●	●	A	A	●	I	Z	P	A	R
I	A	Z	K	O	A	●	A	T	E
●	U	T	●	I	K	A	R	A	●
I	Z	A	I	N	●	E	R	N	E
●	I	N	D	A	R	K	A	●	A

Jeroglifkoa



Gipuzkoako herria

BERGARA



Udazken kulturara

Abenduak 9

JOSE MANUEL AZKUE AGINAGALDEK EMANDAKO KONTZERTUA

Jose Manuel Azkue Aginagaldek Donostiako Santa Maria Basilikako organojoleak kontzertua emango du San Pedro parrokian arratsaldeko 8retan.

Abenduak 11-15

"JOSTAILUEN ERAKUSKETA"

Jostailuen inguruan argibideak emango dira eta jostailu egokiena zein den jakiten lagunduko dute Txatxilpurdi elkarteko bi begiralek.

Abenduak 13-14

EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO BIDEO EMANALDIA

Kultur etxean izango da arratsaldeko 7retan. Sarrera dohainik.

Abenduak 16 zapatua

XAMATZ DANTZA TALDEAREN X. URTEURRENEKO JAIALDIA

Oraingo eta lehengo Xamatz-eko dantzariak eskeinitako ekitaldia, txitulari eta dultzaineroen laguntzarekin. Udal pilotalekuan izango da gaueko 10,30etan. Sarrera 500 pezeta.

Abenduak 23 zapatua

GABONETAKO KONTZERTUA


Bergarako Udal Musika Bandak, Bergarako Orfeoia eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak eskainita gaueko 10,30etan izango da Udal pilotalekuan. Sarrera 800 pezeta.

Abenduak 29 eguakotxa

ANTZERKIA

Karraka antzerki taldeak "Pekata Minuta" antzeztuko du. Novedades Aretoan izango da gaueko 10,30etan.

ARRASATE



PINTURA ERAKUSKETA

Azaroaren 24tik abenduaren 10era Harresi Aretoan Estibaliz Ormaetxearen pintura erakusketa egongo da ikusgai.

Abenduak 12 martizena

HITZALDIA

Umezaintzak antolatuta "HAURRA ETA KONTSUMOA, JOSTAILUAK GURE SEME ALABEI JOLASEAN ERAKUTSI". Arratsaldeko 6,30etan Monterron kultur etxean.

Abenduak 14 eguna

HITZALDIA

Umezaintzak antolatuta "HAURRA, telebista eta ahozko harremana, telebista oztopo edo laguntza apendizaiarentzako?". Arratsaldeko 6,30etan Monterron kultur etxean.

Abenduak 16 zapatua

JAIALDIA

"FAUNA TXIKI BAT BERTSO BERRITAN", Sarasua anaien diska berriaren aurkezpena eta SOROTAN BELE taldearekin jaialdia. Gaueko 10,30etan Amaia Antzokian.

IKASTAROAK

TXONTXONGILO TAILERRA, Taun Taun kolektiboaren eskutik. Abenduak 26, 27, 28, 29 eta 30. Arratsaldeko 5etatik 7retara. Matrikula 5.000 pezeta, 3.500 ikasle eta langabetuentzat.


ALBOKA IKASTAROA. Urtarriletik apirilera zapatu goizetan. Matrikula 2.000 pezeta, 1.000 pezeta ikasle eta langabetuentzat. Izena emateko epea zabalik.

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gozategia
Panaderia - Pasteleria*



Aretxabaleta

Militaria 1 - Tfno. 77 00 81

Aretxabaleta

Crador Propio

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA



Abenduak 8 eguakotxa

**SAN MARTIN KOFRADIAREN
BATZARRA**

San Martin kofradiak batzar orokorra egingo du Kurtzebarri eskolan eguerdiko 12etan.

Abenduak 10 domeka

UDA-LAZKAO

Preferenteek arratsaldeko 4,30etan neurtuko dituzte indarrak lazkaotarren aurka Ibarra futbol zelaian.

Abenduak 16 zapatua

**SANTA LUCIA JAIK GALARTZA
AUZOAN**

Arratsaldeko 6etan meza egongo da. Ondoren luntxa auzokoentzako.

Abenduak 17 domeka

**SANTA LUCIA JAIK GALARTZA
AUZOAN**

Goizeko 11,30etan kanpai jotzea eta etxaflero jaurtiketa. 12,30etan meza eta ondoren luntxa. 1,30etan trikitilariak.

"MIGAS EXTREMEÑAS" EGUNA

Corazón de Encina taldeak

antolatuta, goizeko 10etatik arratsaldeko 7rak artean hainbat ekintza egongo dira herriko plazan.

Haien artean, **Extremadurako produktuen dastaketa** eta **bertako dantzen eta abestien saioak**.

Abenduak 17 domeka

**LUDI BERRI TALDEAZ CAMP
DANTZALDIA**

Ortzadar Atsedeen Taldeak antolatuta, Ludi Berri taldeaz camp dantzaldia egongo da Kurtzebarriko eskolako aretoan, gaueko 10etan.

ZARAIA M.T.aren URTEERA

Zaraia M.T.ak Max mendira egingo du urteera.

**Oleo eta ontzi
erakusketa**

Abenduaren 5etik urtarrilaren 7ra bitartean Gurutze Mujikaren margo eta ontzi erakusketa ikusgai izango da Mitartegarai nekazal turismo etxean (Arientza auzoan).

**Maskara, graffiti eta
antzerki tailerrak**

Loramendi Elkartek maskara, graffiti eta antzerki tailerrak antolatu ditu. Informazio gehiagorako deitu 77 0970 telefonora

Liburu azoka

Loramendi Elkartek abenduaren 22tik 24ra bitartean liburu azoka antolatu du. Azoka Loramendi Elkartearen lokalean izango da.

**BEHARREZKO
TELEFONOAK**



Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



Maalako Errabala, 13
Tfnoa: 79 92 76
ARRASATE



**OKENDO**
KIROLAK